

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresaren segmentazioa merkatu masiboa da, izan ere, harategiei eta familiei salduko diegu, eta biek behar berdina dute: haragia . Beraz, esan genezake gure produktua jende guztiarentzat dela, eta gainera prezioa nahiko eskuragarria izango da erdi-mailako familia gehinentzat.

Gure bezero gehienak, hau da, %60 familiak dira, izan ere, “Meatchine” pentsatuta dago etxe bakoitzean bakarra egotea. Baina familien barruan bi bloke ditugu: begetarianoak edo begetarianoak ez direnak.

- Begetarianoak: Produktuaren bezero gehienak izatea espero da, “meatchine”-k aukera ematen baitie animalien haragia dakartzan proteinak jateko eta guztiz osasuntsu egoteko.
- Begetarianoak ez direnak: Gure produktuaren bezeroak izango dira animalia maltratuarekin amaitu nahi dutenak edo etxetik atera gabe haragia azkarrago lortu nahi, baita dirua aurreztu nahi dutenak harategira joan gabe.

Bestalde, bezeroroen %40 harategiak dira. Haiek gure makinak erosiko dituzte eta haragia sortuko dute harekin, gero bere dendetan saltzeko gure makina erosteko nahiko dirurik ez duenari edo txarto konpontzen dena teknologiarekin. Beste alde batetik, harategiek gure produktua jatekari saldu ahal diete, menu begetarianoetan gure haragia sartzeko, eta jende guztiak edonon probatzeko aukera izateko.